

Sagardoa eta b

Sagardoaren inguruan ez dira kontu gutxi esan. Ezta bertso gutxi bota ere. Sagardotegietan garai bateko bertsolariek makina bat hausnarketa, irtenaldi eta gezi erako zirikadak jaurtikitzen zituzten sagar zukuz zipristindutako doinuekin

EZPALA

Lehengo astean upeletan atse-
den hartzen egon diren sagar-
do litroei ilunpean eta isil-isi-
lik egoteko beta amaitu zi-
tzaien. Ondorengo lerroetan upelen
magalean edota kontura botatako
bertso batzuk berreskuratu ditugu.
Izan ere, askotan, sagardoa 'bidaia-
laguna' izan baita bertsolari bat bai-
no gehiagorentzat. Beraz, nahi du-
zun doinua aukeratu eta hasi bertso-
tan. Txotx!

(Sagardoa Euskal Herrian)

Guraso zarrak barruan zuten
biotz berdingabearen
eredu eta ezaugarriak
ziran sagasti ederren
erdian jaio ta azitako
semeak nola geraden
amak utzita berealaxe
bularretikan ematen
sagardoaren txotxera jun da
ikasi gendun edaten.

Edari maite laztan batean
artzen zaituzte ezpañak
eta taupada gozoz barrura
bultzatzen dizu mingañak
gure lurreko bertsolariak
ta olerkari apañak
euskaldun danok osatzen degun
zugaitz eder ta bikañak
zure bustian ezetu ditu
bere biziaren zañak.

(Sagarra)

Zori oneko sagar maitea
gure antziña zarrian
biotz aundiko serbitzariya
sartu ziñan baserrian
muga gabeko aritz gaztandi
ziraden toki berian
pago dotorez osatutako
baso zabalen erdian
zure gogoko lurra arkitu
zenduan Euskal errian.

Goi mallakoa egin zinduan
izakietan altsunak
arrigarritzko doaiak dira
azalpean dauzkatzunak
zugandik zenbait iturri garbi
artzen duan osasunak

galdetu eta gizon ikasi
asko dira erantzunak
urre guztien gañetik daude
bere aberastasunak.

(Sagastiak)

Gure lurreko landare txukun
apañi eta alayena
eltzera iñoiz piñuen gixa
osto uts eta gallena
zurea beti apaltasuna
arrokeria ayena
animatikan aitortzen dizut
zu zaitudala maitena
Euskal erriko zugaitz txikien
eta biotz emallena.



ertsoaren uzta

(Sagardogintza)

Benetan toki atsegiña da
zugaitztxo onen azpia
bere emaitzez betetzen asten
geradenian saskia
aldameneko adar puntatik
txantxangorri abestia
gozoa dala adierazten
ari zaigu egaztia
laixter sagardo biurtuko dan
sagartxoaren ezia.

Esku gozoak bildu zaituzten
emaitz paregabe ori
udazkenaren amai aldera
ara epaia etorri
eta azkenik tolarearen
eskutan zera erori
janari bikain zendun mamia
biurtu dedin erari
emen utziko diozu korputz
biribil izateari.

(Sagardotegia)

Alkohola txarra omen da baina
egin lezake mesede,
miraririkan lortu lezake,
hortan badet nahiko fede;
guk bera geure egin nahi eta
harek egin gaitu bere,
kupel artean euskal giroan
moldatzen geranez trebe,
han zoriontsu bihur liteke
triste bizi dena ere

(Nahikari Gabilondo, 2001)

**(Gaia: "Hire etxe aurreko sa-
garra lore berritan ikusi di-
tuk. Zer dakarkik horrek buru-
ra?")**

Egunsentian hi ikusita
astindu zaidan bihotza,
iazko kimu punttan hor hago
lore txuri ta arrosa,

hire mezuak adierazten din
neguaren heriotza,
hiri eskerrak nabari dinat
Udaberriaren poza.

Hire polena miazka nahirik
erleak helduko zaizkin,
euri epelak sari gisara
ekarri hainbat xipriztin,
hego haizeak petalo hoiek
bilakatzean hegazkin,
hi joango haiz ta zuhaitz honek
sagarra izango dizkin.

Sagardozale purrukatuak
baserri edo-ta kale,
sagar horiek izango ditun
beren antsien seinale,
sagardo zuku bihurtu gero
denak gero alez-ale,
hiri eskerrak loretuko den
hamaika sagardozale.

(Iñaki Murua, 1991) ■

Sagardoa (Iazkao Txiki 1982)

Al dan ongien eman nai ditut
sagardoaren berriak,
nik nere baitan uste dedana
jakin dezan erriak.
Beste edari oberik ez du
gizonaren egarriak,
bedeinkatuak gure sagasti
eta sagardotegiak.

Garai batean sagardoa zan
bertsolarien edari,
lagunartean bildutakoan
edan oi zuten ugari.
Gero ixilik egon ezin da
asitzen ziran kantari,
edari onek berea baldu
alkartasun jator ori.

Udaberrian joaten bagera
sagardotegi batera,
basoak artu eta lerroan
kupeletik kupelera.
"Au ona dago, ta beste ori
au bezin ona ote da?"
Probatutzeko asmoan joan ta
bapo eran da etxera.

Goltik botata goxoago da
ongi atereaz pitsa,
ta giltxurdiñak garbitzen ditu
xamur egiten da pixa.
Umore ona piztu arazi
eta luzatu bizitza,
obe genduke sagardo geido
orango baldin baitza. ■



Sagardotegia-kafetegia

Gaia: "Joxe Mari Mujika 'Anatx' nahiz eta bertsolari gaztea izan, sagardotegiko antzekoa da eta Jon Sarasua, kafetegiko antzekoa. Non dago etorkizuna?"

(Jon) Baina gazteak zahar usai duna nola lezake gorrota?
Nere lagunak hasi ohi zaizkit
Lalster "que pasa tío"ka,
agureentzat berriz bertsorik
sagardotegin ez bota,
bertsolaritzan etorkizuna
diskoteketan dago-ta

(Anatx) Etorkizuna non ote dagon
bertsoaren iturrian?
Jakín ezazu entzule malte
jalo nintzan baserrian,
ta dutan nere eskola dena
daukat upel baztarrian,
horregatik kantatutzen det
lehengo ohitura zarrian.

Lehengoa lagun gaztetxo batek
hau esan zidan serlo,
Anatxi bere erloju denak
gelditu egin zaizkio,
ohitura zaharra ta sagardoa
malte ditula medio,
azkenerako urdallak ere
kupel forma hartu dlo

Urdallak ere kupel tipua
ez al nago kurloso,
ta Sarasua bide txarrean
abiatu zerade oso,
sagardotegin edaten baldia
dozena erdi bat baso,
orduaz errez eta gustora
kantatzen da zenbait bertso.

Ohiturak ere aldatzen doaz
ta hala behar da hezi,
nahiz eta jakín hainbeste gauza
izan dala injustizi,
lehengoa gorde behar da balna
hau jakín zazu lehenbizi:
aldatu gabe hiltzea baino
hobe aldatuta bizi.

(Abadiño, 1990) ■

Sagardoa

Pablo Zubiarrain "Pablo-Txiki edo Hernani Txikia" k egindako bertsoak:


Adan eta Ebak andik jatea
zeukaten debekatua,
gure Jainkoak euskaldunentzat
zeukalako aldatua,
gero sagardo biurtu zedin
ematen zuen frutua.

Azi artatik sortu ziraden
lur ontako sagastiak,
guraso zarrak ondlatuta
lenago zeuden sasak.
Bi arbol-klase jarri zituzten,
dira geza ta gaziak,
aien zumoa edan zezaten
euskaldun seme guziak.

Sagardotegi maitagarriak,
joan zññaten bukatzen,
kimikaz egindako ardoa
asi baltziran ekartzen.
Etxean degun gauzik onena
arrazkeroztik baztertzen,
euskaldunari gauza askotan
orixe zaigu gartatzen.

Sagardotegi maitagarriak,
beti zaituztet goguan,
zuen barruan neguan antxe
egoten nintzan zeruan.
Zar eta gazte danak bildurik
upeltxoaren onduan,
bertsolariak ederki daki
zenbat gozatzen genduan.

("Ia kantatuz bezela" liburua, 1985) ■



Sagardoa, koñaka, sasiak eta bertsoak

SEBASTIAN SALABERRIA oiartzuar-
rak (1915-2003) bere ibilian hiru libu-
ru idatzi zituen: *Nere soroko emaitzak*,
Neronek tirako nizkin eta
Sagardotegiak. Azken liburu honetan
bada sagardoarekin zerikusia duen
Sebastianen gaztaroko pasarte bitxi
bat.

"Iritxi zan, ba, ez guk nai baiño len
urrengo igandea ere. Etxean esan
genuan Ermanira goazela; baiña gu
Oiartzun aldra begira jarri eta bai
zuzen asko joan ere.

'Gustoko lekuan aldaparik ez' dio esae-
rak. Baiña berriro pasa bear izan
genduan oso gogozkoa etzan alda-
pa trakets bildurgarri ura, sagar-
doa edango bagenduan; eta noiz-
bait iritxi giñan beintzat baserri
ortara.

Arrigarritzko jendetza zan bertan
zurrutean ari zana. (...). Nagusiak
kanilla sartu omen zion beste
kupelari, eta an ari ziran eztabai-
dan lengo kupeleko sagardoa ohea
zala eta etzala. (...).

Lengo kupelekoak jo egiten zuan,
eta azkenerako bai berriak ere.
Ala zion jendeak:

- Sagardo onek badik deabrukeri-
ren bat. Nik, beintzat, atzo baiño
gutxiago edan diat, eta sekulako
kankarra arrapatu diat; eta emen
nabillek zutik ezin egonik.

Beste batzuk, berriz, buruari eldu eta
maian lo. (...).

Guk ere bagenduan galtzak bete lan
disimulatu nai eta ezin.

Gu abiatzeko aurrean, sartu zan aitona
blusadun bat, bera ere naiko bustia.
(...)

Ark etzuan iñor gonbidatzen. Norbaitek
eskeintzen bazion, edan, bai.
Kupelaren ondoan jarri eta tragoa maiz.
Bera ere beste asko bezela jarri zan,
ba, indarrean. Asi zan desapioka, onela
esanez:

-Nai duanari jokatuko niokek amar kilo-

metro korrika zeñek lenago pasa, eta
lau orduan zeñek belar geiago ebaki!

(...) Ikusirik orduak aurrera zijoazela,
etxe aldera abiatzea pentsatu gen-
duan: eta aitona ere 'Gabon pasa!'
esanda, gurekin batera abiatu zan.

Bide kaskar artan beera goazela, berak
kontatu zigun, esanez:

-Zuek ez dezute jakingo baserri ortako
sagarrondoaren miraria zer dan.
Nagusiak berak esan zidan neri
Jainkoagatik ez iñori esateko, baiña zer
martingala edo deabrukeri egiten zien



kupelei: sagardoz bete aurretik, botilla
bat edo beste pattar, koñaka alegia,
astintzen zizkion pristi-prsta kupelari,
barruko jira guztian, eta gero sagardos
bete, eta edarixinpartatsua edo indar
arrigarritzkoa atera izan zuan geienetan.
Sagardozaleak batere konturatu gabe,
ankaz gora botatzen zituan oietakoa.

Eta nik batere uste gabe egin det, ba,
pekatu. Aitona malizi gabe arek esan
baizigun ez iñori esateko. Baiña orre-
gatik ez al naiz noski inpernura joango;
eta joaten banaiz ere, an aurkituko det
aitona itz-jario ura, ni bezin errudun
baita bera ere, guri esateagatik.

Kontu kontari goazela, bidegurutze bate-
an agurtu gindun (...) Antxe konturatu
giñan linternak etxean utzi genituela
aztuta.

(...) Izarrak maiz xamar ikusten geni-
tuan, eta ez zeru aldean, gertuago bai-
zik, zugaitz-adarrak begiondoan jotzen
giñunean.

(...) Alako batean hor dijoa nere laguna
amilka goitik beera, sasi mordo aundi
batean ezkutatzeraiño.

Sebastian Salaberriak, kezkatutik,
minik hartu ote zuen galdetu zion:

-Orain ez diat sentitzen -esan zion lagu-
nak- Biar izango dituk kontuak.
Aurpegiko eta eskuetako arantzak
ateratzen bazeukat egun erdi
bateko lana.

Eta, ez bat eta ez bi, or asten da
sasi tartean bertsoan. Onelatsu
kantatu zidan:

Goitikan bera amildu niok
sagardoaren indarrak,
ongi etorri egin zidatek
emen otiak ta larrak,
aurpegi dana zauriturikan,
baita ere atzaparrak;
arantza zorrotz asko zeuzkat nik
biar atera bearak.

Garai artan neroni ere, trebeago
nintzalako-edo bat-batean bertso-
ak kantatzen zerbait jarduten nin-
tzan, eta nik ere nolabait eman nion
nere erantzuna:

Zurruta maite duanarekin
edariak agintzen du,
batere uste gabean jo ta
ankaz gora botatzen du.
auxe da emen gertatu dana:
guk nai baiño len illundu;
etziñan beko zulora joango
linterna izan bazendu.

Ederki kostata baiña noizbait atera
zan, ba, sasi tartetik gora nere lagun
Xegundo, eta nolabait jetxi giñan bide
trakets artan beera".

Sagardoari

Ramon Artola Larrañaga
(1831-1906)
Tolosarrak, bertso hauek,
1860an jarri zituen.

Bedeinkatua izan dedilla
sagardoaren graziya,
bai eta ere kupira gabe
eraten duben guziya;
erari onek gizon askori
ematen dio biziya,
au eran gabe egotia da
neretzat penitentziya.

Lenengo sartu tabernan eta
ateratzen naiz azkena,
egun guzian zurrutian da
etzait betetzen barrena;
au da erari maitagarri bat
arras plztutzen nauena
Joxepa Karmen bihotzekoa
bete amaseigarrena

Gaitzik ez duben erari oni
gogoz oi diot nik ekin,
satisfazioz ez naiz arkitzen
pitxar bat eta blekin;
iru edo lau izaten ditut
arratserako nerekin,
tristura eta penak sendatzen
ditut sagardoarekin.

Bart arratsean egin det amets
len egin izan dedana,
tabernatikan irten naizela
txispatu edo edan;
pausorik txuxen egin ezinda
esaten nuben: au lana,
golpatu gabe ez nindeke juan
gaur ni andriarengana.

Kupelan dagon sagardoak dit
ematen tentazioa,
prezisamente eran bearra
daukat persekuzioa:
milla deabruz josirikako
orain duben prezioa,
zaleak asko garen medioz
dauka estimazioa.

Eranago ta berriz naiago
beti nago egariyak,
begi bitarte txarrikan ez dit
egiten tabemariyak;
emeretzi len, au ogeigarren,
amar atzo zor utziyak,
markak kupelan egin, jaiean
pagatutzeko guziyak.

Aitor Mendiluze

Bertsolaria

“Sagardotegia bertsotan aritzeko plaza gogorra da”

Bertsolari gaztea baina eskar-
mentu handikoa. Urteak daramatza
oholtzatik oholtzara. Gipuzkoako
bertso txapeldun ohiak urtean zehar
90 bat bertso-saio izaten ditu eta sa-
gardotegietan, ordea, sei-zazpitan
aritzen da bertsotan. Txotxa, sagar-
doteği giroa... eta nola ez bertsoa
hartu ditugu hizpide.

**Jexux Mari Irazurekin batera Astigarra-
gako Txotxaren hasiera bertsoz busti
zenuen.**

Lehen aldia zen ekitaldi horretan
parte hartzen nuela. Baita Irazuk ere.
Egun kurioa izan zen: berezia.
Imajinatzen genuenaren antza pixka
izan zuen, baina baita imajinatzen ez
genituen uneak ere bizi izan geni-
tuen. Era horretako ekitaldi batek
handitasuna ematen dio txotx den-
boraldiaren hasierari.

Oihartzun handiko ekitaldia da.

Bai, eta ez hedabideengan duen so-
nagatik bakarrik, baita antolatzeko
eragatik ere. Oro har, alegia.

**Sagardotegietan modak ederki aldatu
direla.**

Hala da, derrigor. Batetik, osasuna
zaintzeko neurriak. Eta bestetik, gar-
bi dago gaur egun sagardotegietara
joaten garenon artean oso jende gu-
txi gara lehengo ukuilu zaharrenaren
irudiarekin akordatzen garenok. Be-
raz, sagardotegi munduan denbora
gehiegi daramatzanarentzat, sagar-
doteği ez da aldatu. Beti egungo
irudiarekin ezagutu baitute.

**Hau da, altzairu herdoilgaitzetara ere
egin gara.**

Derrigor! Aurrerapena baita. Egu-
rrak sagardoari ematen dion gustua

aipatzen zuten lehen batzuk. Baina,
gaur egun, sagardoa hartu, edan eta
denok konforme izaten gara. Altzai-
ru herdoilgaitzak abantaila asko di-
tu, beraz, aurrera begira berdin ja-
rraituko dugu.

**Andoaindarra izanik, sagardotegiak
esku-eskura.**

Eskura ez ezik joateko ohitura dut:
batzutan baita gehiegi ere. Beti izan
dut harreman gertuko bat sagardote-
giekin. Eta aukeran, asteburuetan jo-
an baino, aste-egunetan hurbiltzeko
joera dut.

Sagardotegietara joan zale den jende-
ak eta sagardo-egile beraiek ere, uste
dut ez dutela asteburuetan askorik
gozatzen. Lasai afaldu, kontu batzuk
esan eta etxera itzultzea, plan polita
da. Hau da, astean zehar, astearte edo
asteazkenetan, garaiz afaltzera joan
eta hamaikak aldera, etxera.

**Egun hamaika eratako bertso saioak
egiten dira, adibidez, bertso-bazkari
eta afariak sagardotegietan.**

Bai. Gehiago esango dut, Hernaniko
bertso-eskolan badira hiruzpalau ur-
te sagardotegietarako propio, bertso
saioak antolatzen ari garela. Tamaina
eta egokiera txikiko sagardotegiekin
hitz egin eta afal ondoko saioak an-
tolatzen aritzen gara.

**Jendearen aldetik, zer harrera izan du-
te saio horiek?**

Denetarik dago. Gu ez gara joaten
saio antolatu moduan, afari truke
baizik, eta otorduaren ostean bertso-
eskolako bizpahiru gazte aritzen dira
bertsotan. Entzulea ere denetarik
izaten da, baina beti suertatzen da
bertsoa gustuko duen koadrilaren
bat.

Bertsolaria plaza-gizon egiteko ez da leku txarra?

Sagardotegia bertsotan aritzeko, plaza gogorra da. Norberak egin behar izaten du dena; mikrofonorik gabe aritzen garenez, aurrena publikoaren arreta eskuratu behar izaten da. Gero, entzulea engan-tzatzea, hau da, zerbait eskaini be-har zaio. Eta azkenik, saioa buru-tu. Beraz, bertsolariak saiatzeko gogo pixka bat badu, plaza zorro-tza da.

Sagardotegian, zutik edota eserita.

Normalean zutik, batekin eta beste-arekin egoteko aukera ematen due-

ta itzultzeko ere. Baina ez naiz aje handia izaten duen horietarikoa. Gustura joan eta bueltatzen naiz etxera. Bertso konpromisoak dire-nean, astean sagardotegi pare bat egitea gogorra da.

Sagardoa, "gutxi eta maiz"?

Gutxi behintzat, bai. Maiz? Beno, ez gehiegi ere. Ez naiz sagardoa hartu eta basoa beteta mahai gaine-an utzi zalea. Niri sagardoa basoan ilundu egiten zela erakutsi zidaten, tragoz edan eta aurrera egiten dut.

Eta bertsoak, "asko eta beti"?

Bai. Nik beti bertsotan aritu nahiko

gardotegi batean kantatu zenuene-koa?

Hernaniko bertso-eskolara joan eta inork inori ezer abisatu gabe, Joxe Mari Mujika "Anatx" bertsolariari, 'goazen sagardotegira afaltzea' bu-ruratu zitzaiola uste dut. Dozena bat urte izango nituen. Astearte iluntzean etxera hots egin eta 'ama sagardotegira noa' esan izana gogo-ratzen dut. Ama harrituta. Eta gero, noski, ama kezkatutik. Aitak be-rriz, 'zer moduzkoa sagardoa?' eta 'txintxo?' galdetzen zuen. Eta kito.

Esan al daiteke seigarren tragotik aurrera 'denok' bertsolari bihurtzen garela?


Hori iruditzen zaigu, hots, denok bertsolari bihurtzen garela. Bertso-tan saiatu, bai, asko, baina, bertsola-ri bihurtu... hori beste kontu bat da.

"Sagardotegietan gertatzen ez dena, ez da inon gertatzen" esan ohi da...

Hamaika xeblekeria ikusi izan di-tut sagardotegietan. Egin ere, ziu-rrenik, bat edo beste ere bai. Ez da-kit nondik azaldu zen tipo xeble-re baten ibilerak gogoratzen ditut. Ez zuen txotxetik sagardoa hartzeko txandarik errespetatzen, berea ez zen mahaletatik jaten aritu zen... Halako batean, kupel baten ondoan inguratu egin zuten eta denen arte-an jan egingo zutela pentsatu nuen. Ba, ez. Jendea sagardotegiko arauak azaltzen hasi zitzaion, sa-gardoa nola hartu behar zen... Se-guruenik pertsona harentzat gogo-rragoa izan zen ikasgai hura, inork beste neurri batzuk hartu izan bali-tu baino.

Sagardotegia entrenamendu gune ona al da urritik aurrera hasiko den Gipuzkoako Bertso Txapelketarako?

Ez. Sagardotegia ona da deszentra-zio leku bezala. Txapelketa lasai hartu behar da. Orain, goza deza-gun denon artean eta sagardotegi denboraldia bukatu ondoren nahiko denbora izango da geure buruak prestatu eta estutzeko.■



nez, erosoagoa da. Baina lagun pa-re batekin lasai afaltzera joanez ge-ro, orduan eserita jartzeko ez dut inolako arazorik.

Tortilla, bakailaoa, txuletak, intxaurrak... badago non aukeratua.

Bai, tarteka jateko, menu polita da. Oso gustuko janariak ditut eta ez dut sekula kexarik izan prestatuta-koa ona badago behintzat.

Beraz, urtarrileko "gustuko" aldapan oinazerik ez?

Joateko ez dut oinazerik izaten. Ez-

nuke. Eta asko gainera. Baina gehiegi ez, egokiena tamaina har-tzea da.

Bertsotan aritzeko sagardoa lagun-tzaile ona al da?

Mingaina dantzan jartzeko, bai; bertsoak zuzen botatzeko, ez. 'Ber-tsotan ondo aritzeko edan egin be-har da' diote batzuk. Ez. Bertsotan edan gabe eta txukun aritu behar da. Norberak ikusi behar du bere mugak non dauzkan.

Gogoratzen al duzu lehen aldiz sa-